

EGILEA

Patricia García-Rojo

IRUDIGILEA

Alejandro Villén

GAIAK

Adiskidetasuna. Ingurumena. Kontsumorako hezkuntza. Irudimena eta sormena. Talde-lana. Umorea. Erantzukizuna


GAITASUNAK

Herritartasunerako gaitasuna. Ekintzaitza-gaitasuna

BESTE ARLOEKIKO LOTURA

Arte Hezkuntza (Plastika)

ORRIALDE-KOP.: 64



Ugerrak erasoan berriro

Zabor-pila handia!

ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Zabor artean bizi diren alegiazko izaki txiki batzuei buruzko istorio erraz eta dibertigarri bat kontatzen duelako. Kontakizunaren bitartez, gure inguruko mundua zaintzea zeinen garrantzitsua den jabetzen laguntzen duelako. Bilduma baten hasiera delako, eta bertako pertsonaia atsegin eta kuttunek lehen orrialdetik liluratuko dituztelako irakurleak.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Ugerrak paper-zati, lata huts edota patata frijituen poltsa bakoitzaren atzean aurkituko dituzu, besteak beste. Uger erregeak muntuko zabor-pila handiena egin nahi du, eta, horretarako, mota guztietako zaborra biltzeko eskatu die bere jarraitzaileei. Baina Rok, garbi-garbi egotea gustuko duen uger txikiak, helburua lortzea eragoztiko dio, Tina bere lagun gizakiaren laguntzaz.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Irakurle-mota guztientzat; izan ere, istorio erraza izateaz eta ilustrazio adierazgarriak edukitzeaz gain, umore-ukitua ere badu, eta horrek irakurle uzkurrena ere erakarriko du. Horrez gain, baliagarria izango da ikasgelan ingurumenaren zaintza sustatzeko eta ikasleak kontsumo arduratsuz kontzientziazteko.

JARDUERA-PROPOSAMENA

BAKARKA

Proposatu ikasleei ipuinaren **egileari gutun bat** idazteko; konta diezaiotela zer gustatu zaien gehien istorioan. Horrez gain, beste gutun bat idatz dezakezue denon artean, zenbat ikaskideren proposamenak bilduta, eta idazleari bidal diezaiokezue haren webgunearen bitartez (patriciagarciarajo.wordpress.com).

TALDEKA

Antolatu zure ikasleak taldeka, eta eskatu bilatzeko liburu irudietan **emozio** hauek adierazten dituzten zenbait pertsonaia: *poza, ahalegina, atsekabea, haserre, beldurra, etsipena*, etab. Jarduera amaitzeko, ikasleek emozio horiekin lotutako **egoera pertsonalak** konta ditzakete ikasgelan; alegia, noiz bizi izan dituzten halako emozioak.

TALDEKA

Kontakizuna irakurri ondoren, eta talde handian jarrita, aipatu zeinen beharrezkoa den gure ingurua zaintzea eta hondakinik gabe garbi edukitzea. Ideia hori abiapuntuz hartuta, lankidetzaz-jarduera bat presta daiteke, **ikastetxeko jolastokia garbitzeko**. Horretarako, zatitu jolastokiko eremua eta banatu talde txikien artean; talde bakoitzak bere eremuko zaborra bildu beharko du (beti babes-neurri egokiak hartuta), eta paperontzien barruan sartu, Rok eta Tinak haien plan batean proposatu bezala.

ARTE HEZKUNTZA (PLASTIKA)

Zenbaitetan, paperontzira botako genituzkeen zenbait **material berrerabili** egin ditzakegu, artea egiteko. Eskatu ikasleei material horietako batzuk ikasgelara ekartzeko (*erabilitako plastikozko botilak, komuneko edo sukaldako paperaren biribilkiak, botilen tapoiak edo potoen tapak, aldizkari-papera*, etab.), eta animatu artelan bat sortzera, birziklatutako elementu horiek soilik erabiliz. Amaitzeko, egindako artelanaren esanahia edo erabilera azaldu beharko du ikasle bakoitzak.

IDAZKETA-TAILERRA

Roren magiari esker, Tina bere laguna bezain txikia bihur daiteke. Proposatu ikasleei asmatzeko istorio bat: **berak** izango dira protagonistak, eta ugerrak bezain **txiki bihurtu ahal izango dira**. Zer egingo dute? Nora joango dira? Zer arazo eta zer abantaila izango dituzte? Eta nola amaituko da haien abentura? Jar dezatela irudimena dantzant!